

**2020. urteko diru-laguntzen deialdia**

**Eremua: GENERO INDARKERIA ERROTIK ATERATZEA  
ETA BERDINTASUNA**

**Diru-laguntzen lerroa: GENERO-INDARKERIARIAREN  
PREBENTZIORAKO EKIMENAK**

## **1. artikulua. Esparrua eta xedea**

Bilboko Udalaren Berdintasun Sailak, berdintasunaren eta genero-indarkeria errotik kentzearen eremuaren barruan, "Genero-indarkeria prebenitzeko ekimenak" izeneko diru-laguntzen lerroaren deialdia egin du 2020rako. Horren helburua da Bilboko udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa edota prebentzioa egitea.

## **2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

## **3. artikulua. Erakunde onuradunak**

**3.1** Diru-laguntza eskatu ahal izango dute emakume edota feministen elkarteak eta elkarte mistoak, emakumeen idazkaritza, ordezkariak edota beste funtzionamendu autonomoko organoren bat dutenak, irabazi asmorik gabekoak eta helburu edo jarduketan artean gizonen eta emakumezkoen berdintasuna sustatzea eta emakumeen kontrako indarkeria errotik ateratzea dutenak.

Emakumeen idazkaritza, ordezkariak edota beste funtzionamendu autonomoko organoren bat badela berariaz jasota etorriko da elkartearen estatutuetan eta benetan eratuta daudela ere egiaztatu beharko da.

**3.2** Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakundearen Udala Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua) (2020ko otsailaren 17a).

**3.3** Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera

aurkezten den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

#### **4. artikulua. Aurrekontu-kredituak**

**4.1** . Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu kodearen PEP: 2020/00209 eta ekitaldirako 2020 onartutako 2020 33000 4 00209 00 2020 gastu-proiektuaren kontura finantzatuko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 30.000 euro da.

**4.2** Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

#### **5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura**

**5.1** Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka izan daiteke:

- Norgehiagokan, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehenetasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

- Diru-laguntza arlo honetan onetsitako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa honetarako prestatutako zenbatekoa baino txikiagoa bada, soberakinak berdintasunaren eta genero-indarkeria errotik kentzearen beste bi arloetara bideratutakoa handituko du.

**5.2** Diru-laguntza gehienez 2000 eurokoa izango da.

**5.3** Norgehiagoka sistema erabiltzen den kasuetan, behin gutxieneko atalaser a helduta 50 puntu, emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberrako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

<b>Programari emandako puntuak</b>	<b>Emateko diru-laguntzaren %</b>
81 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
61- 80 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 90
50 - 60 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80

#### **6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak**

**6.1** Diru-laguntza arlo honetan diruz laguntzeko moduko kontzeptuak izango dira

gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko jarrerak sortu eta, hainbat arlotan, emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak errotik desagerrarazteko programak, proiektuak, ekintza edota estrategiak garatzen dituztenak.

**6.2** Diruz laguntzeko moduko jarduerak izango dira ekimenak abian jartzea, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren aldeko jarrerak eta emakumearen aurkako edozein indarkeri dakartzaten jarrerak desagerraraztea sustatuko dituztenak. Ekimen horiek Bilboko auzoetan, barrutietan edo udalerrian garatuko dira.

- Indarkeria matxista jasan duten edo jasaten duten emakumeen arteko desberdintasunak ikertzeko, horien inguruan sentsibilizatzeko, zabaltzeko eta agertarazteko jarduerak, emakumezkoen buruzko estereotipoak desagertzeko
- Errespetuzko harremanak eta genero-berdintasuna bultzatzen duten jarduerak, balioen aldatzean sakontzen dutenak eta genero-berdintasunari buruzko arauak bultzatzen dituztenak.
- Emakumezkoen segurtasuna bultzatzen duten jarduerak.
- Oso errotuta dauden arau sozialak eta desberdintasuna zalantzan jartzen dituzten jarduerak, gizonezkoek emakumezkoengan erabiltzen duten kontrola eta boterea betikotzen dituztelako eta emakumezko eta nesken aurkako indarkeriaren inguruko tolerantzia sendotzen dutelako.
- Kontzientziazio edo/eta mobilizazio komunitariorako jarduerak (sare sozialak, komunikabideak...).
- Hezkuntzako, prebentzioko eta sentsibilizazioko jarduerak, batez ere mutilentzat, gizon gazte eta helduentzat, beren errespetuzko jarreraren eta jarrera arduratsuen garapenean eta indartzean inplikatu aha izan daitezkeen. Isiltasun korporatiboa apurtzera konprometitzu.
- Deialdi honen helburuarekin bat datozen beste ekimen batzuk.

**6.3** Diruz lagundutako jardueraren izaerakoak diren, haren garapenarekin zalantzarik gabe lotuta dauden eta 2020. ekitaldian egiten diren gastuak dira diruz lagun daitezkeenak.

- Material suntsikorreko gastuak: Inprenta, foiletoak, publizitatea eta diruz laguntzen den jarduerari zuzenean lotutako beste suntsikor batzuen gastuak.
- Kontratazioen (profesionalak, soldatapeko langileak eta beste enpresa edo elkarte batzuk proiektua zuzenean burutzeko) ondoriozko gastuak. Proiektua garatzean eta horretan soilik aritzeagatik pertsonen edo entitateen ordaintzeko gastuak soilik lagun daitezke diruz. Entitatearen koordinazio edota administrazio-gastuak baztertuta geratuko dira. Eskabidea egiten duen entitateak aurkeztutako proiektuan desglosatu beharko du eta zehaztu jarduerak (ikastaroak, tailerrak edo antzekoak) irauten duen ordu-kopurua, baita ordu bakoitzeko diru-kopurua ere (zergak ere kontuan hartuta).
- Proiektua egiteko kontratatzen diren langileek emakumeen eta gizonen arteko

berdintasunaren arloan gutxienez prestakuntzako edo esperientzia profesionaleko 50 ordu eginak dituztela egiaztatu beharko dute, prestakuntza, tailerrak eta hitzaldiak ematea eta antzekoak direnean.

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak erabiltzeari dagokionez, entitate onuradunek betekizunak betetzearen ondoriozko gastuak.

#### **6.4 Aurkeztu ezin direnak:**

- Indarkeria matxista jasan duten edo jasaten duten emakumeei edozein arreta mota ematea helburu duten proiektuak, programak eta jarduerak ezin izango dira diruz lagundu.

## **7. artikulua.- Eskabideak**

### **7.1 Aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2020ko otsailaren 17an amaituko da.

### **7.2 Informazioa eta dokumentazioa.**

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian ([www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio)).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

### **7.3 Bideratzea**

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

**7.4** Erakundearen legezko ordezkari edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

**7.5** Diru-laguntza eskariak ezin dute gaintitu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

**7.6** Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gaintitu aurkeztutako programaren kostua.

**7.7** Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkiete erakunde eskatzaileei.

**7.8** Programa bakoitza bakarrik aurkeztu beharko da diru-laguntzaren udal arlo batera.

**7.9** Elkarte eskatzaile bakoitzak programa edo proiektu bakarra aurkeztu dezake diru-laguntzaren arlo honetarako.

## **8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

**8.1** Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, I. Eranskin deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.2** Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, I. Eranskin deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.3** Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharriskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharriskalen ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako

aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

**8.4** Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

**8.5** Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erakundeen Erregistroan ez dauden erakundeek, gainera, dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- Dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Erakundearen estatutuen fotokopia.

**8.6** Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak zuzendu ezean eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

## **9. artikulua. Balorazio-irizpideak**

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

**A) Programa baloratzeko irizpideak .....GUZTIRA 80 puntu**

a) Programaren interesa. .... Gehienez 45 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

lido estrategikoekin bat etortzea; Berdintasun Sailaren helburuak eta irizpideak; koherentzia deialdiaren helburuarekin; premiak aztertzea eta testuinguruan sartzeari; ekintzaren justifikazioa; zein kolektiborentzat den; parte-hartzaileen kopurua sexuaren eta adinaren arabera bananduta; hizkera eta komunikazio egokiak erabiltzea; sareko lana edo elkarlana beste elkarte batzuekin; programa finkatzea (lehenago gauzatutako programa).

b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honakoak sartzeari: helburuak, ekintzak, kronograma, metodologia, ebaluazio-sistema, proiektuaren koherentzia, komunikazioa eta zabalkundea (kolektiboak sartuta...)

c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Eraginkortasuna baliabideak esleitzean, programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna..... Gehienez 15 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Euskarazko jarduerak herritar elebidunei zuzendutakoak; gazteen taldeak barne hartzen dituen programa izatea; jarduerak kontuan hartzea kultur aniztasuna (etorkinen eta/edo etorkinei laguntzeko elkarleen artean zabaltzea; proiektuak jorratu ditzala taldeen edo komunitateen arteko erlazioak eta elkarreraginak; proiektuak ekintza bereziak edo ekarpenak edukitzea, atzerritarren partaidetza errazteko); familia-aniztasuna (familia-mota guztiak) sartzeara eta aintzat hartzea; udalerrian dagoen dibertsitate funtzionala; programak har ditzala kontuan pertsona guztien mugikortasuna ziurtatzeko neurri zehatzak.

## **B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 20 puntu**

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Indarkeria prebenitzeko "Andre Ta Jabe" udal programan parte hartzea; sarean lan egitea era askotako elkarteekin; esperientzia egiaztatua; koordinakundeetan parte hartzea, bazkideak andrazkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza-ikastaroetara joatea.

## **10. artikulua. Izapideak eta balorazioa**

**10.1** Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Berdintasun Saileko Berdintasuna Sustatzeko Sekzioari atxikitako langileek izango dute.

**10.2** Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: Berdintasun Saileko Zinegotzia.

Idazkaria: Berdintasun Saileko Zuzendaria.

Kideak: Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Berdintasuneko Teknikari Aholkularia.

**10.3** Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

**10.4** Instrukzio-organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

## **11. artikulua. Berriz antolatzea**

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizios, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

- B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:
- a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.
  - b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

## **12. artikulua. Ebazpena**

**12.1** Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

**12.2** Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

**12.3** Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## **13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea**

**13.1** Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziario gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

**13.2** Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

**13.3** Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

## **14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea**

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziarioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko

komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

## **15. artikulua. Azpikontratazioa**

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

## **16. artikulua. Programa aldatzea**

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

## **17. artikulua. Uko egitea**

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

## **18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea**

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

## **19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea**

### **19.1 Justifikatzeko epea**

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

### **19.2 Justifikatu beharreko zenbatekoa**

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

### **19.3 Justifikatzeko sistema**

**19.3.1** Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin.
- b) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa egikaritzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera egina. Bertan zehaztuko dira gastuaren kontzeptua, faktura egin duen erakundea, data eta zenbatekoa eurotan
- d) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:
  - Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagirik, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaporte). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztatzea ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagiririk aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

#### **19.4 Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada**

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

### **20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.